

Gidariak haserre

Tailerretako gehiegikeriak eta isunak dira gidarien kexa eta buruko min gehien sortzen dituztenak

Nori ez diote inoiz isunik jarri gaizki aparkatzeagatik edo azkarregi ibiltzeagatik? Nori ez diote sekulako dirutza kobratu huskeria bat zirudien konponketa bategatik? Tailerrak eta isunak izaten dira gidarien ohiko arazoak, eta poltsikoan dezenteko zuloa zein buruko min galanta eragiten dute gehienetan.

AMPARO LOPEZ Real Automovil Club-eko (RAC) abokatuaren iritziz, «gidarien eskubideei dago kienez, legeak hutsune handia du eta ez dira jasotzen gidarientzat propio diren eskubideak». Gaur egun gidariak babesten dituen legea kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesten dituen lege orokorra da eta ez dago lege berezirik.

Lopezek oinarrizko hiru eskubide azpimarratzen ditu kontsumitzaile eta erabiltzaileen lege orokorretik. Alde batetik, «benetako publizitatea jasotzeko eskubidea gordetzen da, hau da, kontsumitzaileari ematen zaion informazioa egiazkoa edo benetakoa izatea»; bestetik, «kontratuaren ezin dela eroslearen aurkako klausularik ezarri»; eta azkenik, «kontsumitzaileek garrantzia jasotzeko eskubidea dutela eta, arazoren bat gertatuz gero,

kaltea konpontzeko eskubidea gordetzen da».

Eskubideak paperean hala esan arren, sarritan ez dira betetzen, dela gidariak ezagutzen ez dituztelako, dela tailerretan eta antzeko beste lekuetan gidariak ez erasaten ez dietelako.

Amparo Lopezek eskarmetu handia du gidarien kexu kontuetan; haren iritziz, gidarien kexarik gehienak tailerretan egindako konponketengatik dira. Gidari edo kontsumitzaileen artean kexarik ohikoena prezio garestiegia izaten dira. Hala ere, zenbait kasutan bezeroen axolagabekeria izaten da prezioak garestiegia iruditzearen eta kobratzearen errua. «Bezero askok ez du aurrekonturik eskatzen, eta eskatu egin behar da: alde aurretik jakin behar dugu zenbat kobratuko diguten».

Gaur egun tailerrek konponke-




Tailerrek sortarazten dituzte gidarien kexa gehien. EDURNE KOCH

Ibaeta Motor, S.A.

Citroën kontzesionario Ofiziala
Donostialdea osorako



INSTALAZIO BERRIAK
aurkeztu eta eskaintzen dizkizu



Portuetxe k/, 23 (Ibaeta)
20009 Donostia

Tel.: 31.60.20
Faxa: 31.61.31

ten prezioak ezartzeko askatasuna daukate, tailerra marka edo etxe jakin bati lotua ez badago behintzat. Tailerrak marka jakin bati lotuak daudenean, ordea, markak berak ezartzen du konponketa bakoitzagatik zenbat kobratu behar du.

Tailerrek bezeroari emandako aurrekontutik prezioa igo egin nahi badute, oso gutxi bada ere, abisatu egin behar dute, ea igotze onartzen duen ala ez jakiteko.

Amparo Lopez:

«Legeak hutsune handia du eta ez dira jasotzen gidarientzat propio diren eskubideak»

«kontsumitzaileek garrantzia jasotzeko eskubidea dutela eta, arazoren bat gertatuz gero, kaltea konpontzeko»

Kontraesana badirudi ere, tailerrek bezeroa konponketaren aurrekontuaren garestitzeaz abisatu ez balu eta bezeroak horregatik autoa tailerretik atera nahi izanez gero, autoa atera aurretik ordaindu egin behar du tailerrak konponketagatik eskatzen diona.

Amparo Lopezek arabera, bezeroak bi aukera ditu. Alde batetik, «autoa eraman zuen bezela ateratzea tailerretik, hau da, tailerlean egindako guztia kendu egingo liokete eta bezeroak eskulana ordaindu beharko luke». Bestetik, «tailerrak eskatutakoa

ordaindu eta ondoren errekurritzea».

Horretaz gain, Lopezek salatzaren duenez, «jendeak ez daki konponketa hori beharrezkoa den ala ez, normalean ez baitu autoen mekanikaz ulertzen eta fidatu egin behar baitu tailerlean esaten diotenez».

Batzuetan gertatzen da autoa konpondu eta denbora gutxira berriro hondatzea, antzeko arazoren batengatik edo aurrekoarekin zer ikusia duen kausaren bat dela medio. Halakoetan peritute batek aztertu behar du autoa, tailerlean autoa behar bezala ez zutela konpondu egiaztatzeko eta beharrezko konponketa aurrekoaren garantiaren barruan sartzeko. Hori bai, autoa lehengo tailer berera eraman behar da garantian sartzeko.

Normalean tailerrek hiru hilabete edo 2.000 kilometroko garrantzia eskaintzen dute konponketengatik. Garrantzia bukatu egiten da bietakoren bat betetzen denean.

«Isunak ordaindu ala errekurritu, ez bota» • Tailerrez gain, isunek gidarien hainbat kexa eta erreklamazio sortzen dituzte, azkarregi gidatzeagatik eta gaizki aparkatzeagatik gehienak. Amparo Lopezek nahiko eskarmendu du isunen kontuan. Hark dioenez, «isuna errekurrituz gero, dirurik ez ordaintzeko aukera asko dago. Jende askok isuna bota egiten du, baina gaur egun isunaren zenbatekoa kontu korrontetik kobra diezaioke, interesak eta atzerapenak gehituz gainera. Isuna ordaindu ala errekurritu egin behar da, ez da komeni botatzea». X